

UPV/EHUko MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEAREN BATZARRERAKO 2021eko HAUSTEKUNDEETARAKO ESKULIBURUAREN 1. FASEA

Sarrera

Nor dira batzarkideak eta nola hautatzen dira?

Nola egiten dira erroldak?

Nola jakin dezaket hautesle erroldan nagoen?

Zer egiten dut erroldan ez banago?

Nola aurkezten da inpugnazio bat?

Zer da fakultatearen hauteskunde batzordea?

Sarrera

Joan den 2020ko abenduaren 18an egindako Fakultateko Batzarraren bileran, Fakultateko Batzarrerako hauteskundearen deialdia egitea erabaki zen, argitaratutako egutegiaren arabera. Horrez gain, hauteskunde deialdi horrekin batera, Ikastegiko Batzarrerako ikasleen ordezkariak ere hautatuko dira, zeinek Ikastegiko Ikasleen Kontseilua eratuko baitute. Horrela hautatutako ikasleek (eta haiek bakarrik), Ikastegiko Batzarreko kideak izateaz gainera, Ikastegiko Ikasleen kontseilua eratzen dute. Graduako eta masterreko ikasleen hauteskunde barrutia ikastegia da. Ikasle guztiek hautestontzi berean bozkatzen dute.

Nor dira batzarkideak eta nola hautatzen dira?

Fakultateko Batzarra fakultatearen kide anitzeko ordezkari organo gorena da, eta dekanoa da batzar horren burua. Batzarra honako hauek osatzen dute: dekanotza taldearen ordezkari batek, idazkari akademikoak, ikastegiko administratzaileak, erizaintza ataleko ordezkari batek, eta fakultatearen diren kolektibo bakoitzeko hautetsien kopuru batek. Batzarreko hautetsiak sufragio unibertsalez berritzen dira, lau urtean behin, bi urtean behin berritzen diren ikasleen kasuan izan ezik. Fakultateko Batzarrak 80 hautetsi ditu, 2016ko irailaren 29ko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Arautegiaren 5.2 artikuluaaren arabera, eta unibertsitateko sektoreak aintzat hartuta honela banatzen dira:

SEKTOREA	ORDEZKARI KOP.	PERTSONA/HAUTAGAITZEN GUTXIENeko KOP.
IKASLEAK	16	4
AZPko LANGILEAK	12	3
BESTELAKO IRAKASLE- IKERTZAILEAK	4	2
IRAKASLE- IKERTZAILE IRAUNKORRAK	48	12

Sektore bakoitzaren ordezkariak emakume/gizon alternantziaz osatutako zerrenda itxietan hautagai gisa ageri diren sektoreko pertsonen artean hautatzen dira. Zerrenda bakoitzean, sektoreak batzarrean duen ordezkarien laurden bat egongo da, eta gutxienez bi pertsona agertuko dira. Erroldan sartutako pertsona guztiek bozkatu dezakete beren sektorearen barruan.

Nola egiten dira erroldak?

Errolda 2021eko urtarrilaren 8an itxiko da. Idazkaritza Nagusiak erroldak sortuko ditu GAUR Erroldak aplikazioan, eta ikastegiari atxikitako sektore guztien behin-behineko erroldak fakultatera igorriko dira, 2021eko urtarrilaren 11n iragarki oholetan jar daitezten.

Sufragio aktibo eta pasiborako (bozkatzeko eta hautagaitza batean aurkezteko eskubidea) eskubidez baliatzeko eskatutako baldintzak hauteskunde errolda ixteko datan (urtarrilaren 8an) bete behako dira, eta bere horretan mantendu, bozketaren data arte.

Nola jakin dezaket hautesle erroldan ote nagoen?

Hauteskunde errolda urtarrilaren 11n argitaratuko da, ikastegietako iragarki oholetan, eta bertan egongo da otsailaren 9ra arte. Beraz, erroldan gauden ala ez egiaztatzeko, lehenik eta behin dagokigun ikastegira joan behar dugu (ikasten ari garen ikastegira edo atxikita gaudena).

Era berean, errolda GAUREn kontsulta daiteke. Identifikatu ondoren, alboko menuan “ERROLDA” aukera berria agertuko zaigu, eta horren barruan “Ikastegiko Batzarra aukeratzeko errolda” izeneko adarra. Aukera hori sakatu, eta pertsona bakoitzaren erroldaren datuak agertzen dira.

Datuak webgunean kontsulta daitezkeen arren, erroldak EZ dira webgunean agertuko.

Zer egiten dut erroldan ez banago?

Inpugnazio bat aurkeztu.

Nola aurkezten da inpugnazio bat?

Inpugnazioa idatziz aurkeztu behar da Erregistro Orokorraren bulegoetako batean, edo **posta elektronikoa bidali behar da isabel.lopezabadia@ehu.eus** helbidera, izen-abizenak, NANA eta sektorea (ikaslea, AZPko langileak, IRI iraunkorra, bestelako IRIa) adierazita eta datuak erroldan agertzen ez direla azalduta, 2021eko urtarrilaren 14an, asteazkena, goizeko 10ak baino lehen.

Ikastegiko Hauteskunde Batzordeak erroldak zuzen ote dauden egiaztatuko du, eta inpugnazioen gaineko erabakiak hartu, eta akatsak eta omisioak zuzenduko ditu. Horretarako, 2021eko urtarrilaren 15ean txosten bat igorriko du, behin betiko erroldak aldarrikatuko dituen erabaki proposamena jasoko duena.

Zer da fakultatearen hauteskunde batzordea?

Fakultatearen Hauteskunde Batzordeak hauteskunde prozesua bultzatzen du, Batzarrak adostutako egutegiaren arabera, eta hauteskunde prozesua gardentasunez eta arautegiaren arabera egiten dela bermatzen du.

Dekanoak edo haren ordezkariak –batzordeburu izango denak–, ikastegiko idazkari akademikoak –idazkari lanak egingo dituenak–, eta barruti horren hautesle kidego bakoitzaren ordezkari batek osatzen dute Hauteskunde Batzordea. Zozketaz aukeratzen da Fakultateko Batzarreko kideen artean, eta lau urtean behin berritzen da, bi urtean behin berritzen den ikasleen ordezkariaren kasuan izan ezik.

Bileren egutegia hauteskunde egutegira egokituko da, eta modu orientagarrian, daten eredu eta aztergaien zerrenda eransten da.

IKASTEGIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAREN BILERAK	
<p>1. bilera Urtarrilak 14 (osteguna) Ordua: 10:00 Aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehena.- Ikastegiko Hauteskunde Batzordea eratzea. Bigarrena.- Hauteskunde eroldari aurkeztutako inpugnazioei buruzko txostena eta erabaki proposamena igortzea. Hirugarrena.- Onartutako erolda argitaratzeko agindua, aurkeztutako inpugnazioen kopia batekin, edo bestela, inpugnazioak aurkeztu ez izanaren komunikazioarekin batera.</p>
<p>2. bilera Urtarrilak 28 (osteguna) Ordua: 10:00 Aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehena.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. Bigarrena.- Hautagaitzak behin-behinean aldarrikatzea (Batzarra eta Ikasleen Kontseilua) eta hura argitaratzeko agintzea ikastegiko, ataleko eta irakasguneetako iragarki oholetan eta Fakultatearen webgunean. Hirugarrena.- Bozketa egunerako jarriko diren hauteskunde mahaien kokalekua eta kopurua berrestea. Laugarrena.- Hauteskunde mahaikideak zozketatzea eta behar bezala egiaztatutako arrazoiren batengatik uko eginez gero, horiek ordezkatzeko irizpideak onartzea. Bosgarrena.- Botoa zer pertsonaren aurrean utzi behar den eta bozketa ordutegia zehazten duen akordioa.</p>
<p>3. bilera Otsailak 1 (astelehena) Ordua: 10:00 Aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehena.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. Bigarrena.- Hautagaitzak behin betiko aldarrikatzea eta Ikastegiko iragarki oholetan argitaratzeko agintzea. Hirugarrena.- Hautagaitzei aurkeztutako inpugnazioei buruzko txostena. Laugarrena.- Bozketarako gutunazalak¹ eta boto paperak zehaztea. Bosgarrena.- Propaganda jardueren garapenari eta egutegiari buruzko akordioa (Ikastegiko Batzarrerako hauteskundeen hauteskunde kanpaina). Seigarrena.- Hauteskunde egunari buruzko akordioa hartzea: bozketa lokalak, eskola orduen murrizketa boto eskubidea bermatzeko, bestelakoak.</p>
<p>4. bilera Otsailak 10 (asteazkena) Lehenengo orduan. Aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehena.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. Bigarrena.- Batzarrerako eta Ikasleen Kontseilurako hauteskundeen emaitzak behin-behinean aldarrikatzea, eta argitaratzeko agintzea ikastegiko, ataleko eta irakasguneetako iragarki oholetan eta Fakultatearen webgunean.</p>
<p>5. bilera Otsailak 15 (astelehena) Ordua: 10:00. Aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehena.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. Segundo.- Ikastegiko Batzarreko eta Ikasleen Kontseiluko ordezkarien aukeraketaren emaitzen behin-behineko aldarrikapenari jarritako inpugnatzeen gaineko erabakia. Hirugarrena.- Batzarrerako eta Ikasleen Kontseilurako hauteskundeen emaitzak behin betiko aldarrikatzea, eta argitaratzeko agintzea ikastegiko, ataleko eta irakasguneetako iragarki oholetan eta Fakultatearen webgunean.</p>

¹ Bozketarako beharrezkoa den intendentzia antolatu ahal izateko, gogoratu behar dugu berdin-berdinak izan behar dutela alde aurretiko botorako eta bozketa egunerako erabiliko diren boto paperek eta gutunazalek.